



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

UDALAREN OSOKO BILKURAREN AKTA

BERTARATUAK

alkate-udal burua

BEGOÑA BALERDI URDAMPILLETA

zinegotziak

OIER MINTEGI ZEBERIO

LOURDES SARASOLA ETXEBERRIA

JUAN JOSE GOGORZA BALERDI

FRANCISCA ZUBELDIA LULUAGA

JOSEFINA ALTUNA AZURMENDI

IDAZKARIA

ANA JESUS ZABALA GARMENDIA

Lizartzan, 2013ko apirilaren 22an, arratsaldeko 19:00tan, eta Udaleko alkate udalburua, Begoña Balerdi Urdampilleta izanik, Udaletxeko Bilkura Aretoan bildu dira alboan adierazitako zinegotziak.

Bilkuraren fede ematen du Ana Jesus Zabala Garmendia, udal-idazkari-kontu hartzaileak.

Bilkurari hasiera eman dio presidentek, eta hauek izan dira jorratutako

GAIK

LEHENA. AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONARTZEA.

Alkateak, aurreko saioen aktei ezer esatekorik badagoen galdetu du, eta inork ezer esatekorik ez duenez, aho batez onartu dira.

BIGARRENA. ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Udal honi subsidiarioki aplikagarri zaion apirilaren 2ko 7/85 Legearen 22.2 a) artikuluan adierazitako ahalmena gauzatzearren, eta Tokiko Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoari buruzko Araudia onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 42. artikuluan adierazitakoari jarraiki, Udalburuak Batzarrari jakinarazi dizkio ohiko azken bileraz geroztik hartutako erabakiak:

643/2012 Dekretua

644/2012 Dekretua

646/2012 Dekretua

647/2012 Dekretua

7/2013 Dekretua

9/2013 Dekretua

15/2013 Dekretua

18/2013 Dekretua

23/2013 Dekretua

26/2013 Dekretua

45/2013 Dekretua

51/2013 Dekretua

52/2013 Dekretua

53/2013 Dekretua

56/2013 Dekretua

57/2013 Dekretua

78/2013 Dekretua

79/2013 Dekretua

88/2013 Dekretua

91/2013 Dekretua



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

32/2013 Dekretua
33/2013 Dekretua
34/2013 Dekretua
35/2013 Dekretua
43/2013 Dekretua

94/2013 Dekretua
98/2013 Dekretua
101/2013 Dekretua
103/2013 Dekretua

Jakinaren gainean gelditu da Batzarra.

3.- LIZARTZAKO ARAU SUBSIDIARIOETAKO ESKOLA BERRIAREN EREMUKO ALDAKETA ESPEDIENTEA FORU ALDUNDIARA BIDALTZEA

IKUSIRIK: LIZARTZAn eraiki nahi den Lehen Hezkuntzako Ikastetxe berriaren ahalbidetzeko, Arau Subsidiarioen A.3 Plaza Soro eremuaren Arau Aldaketaren espedientea;

IKUSIRIK: LIZARTZako Arau Subsidiarioen Arau Aldaketaren behin behineko onarpenerako agiria;

KONTUAN HARTURIK: Arau Subsidiarioen Aldaketaren lehen onarpena eman eta gero, jendaurreko izapidean ez direla alegaziorik aurkeztu;

KONTUAN HARTURIK: Sektoreko eskumenak dituzten hurrengo Herri-Administrazioei txostenak eskatu direla: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila, Ur Zerbitzuak, eta Mugikortasuneko eta Bide Azpiegituretako Departamentu eta Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentuei, azken bi hauek Gipuzkoako Foru Aldundikoak;

KONTUAN HARTURIK: Mugikortasuneko eta Bide Azpiegituretako Departamentu eta Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentuek 2012ko urriak 19 eta 2012ko azaroak 5an txostena luzatu dutela, arau aldaketari inongo oztopo edo eragozpenik jarri gabe;

KONTUAN HARTURIK: Agiria behin behingoz onartuta, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeari bidali zitzaion, txosten loteslea egin zezan, lurralde-antolamenduko tresnei egokitzeari dagokionez eta, aplikagarri den araudiaren arabera eta onartutako udalez gaineko proiektuen arabera, Estatuko, Autonomia Erkidegoko edo lurraldeko administrazioaren eskumeneko diren alderdi sektorial guztiei egokitzeari dagokienez.

KONTUAN HARTURIK: Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeak, bi mila eta hamahiruko martxoaren hemezortzian burututako bilkuran, baldintzatutako aldeko txostena luzatu zuela.



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

KONTUAN HARTURIK Ekainak 30eko, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa2/2006 Legearen 103, 104 eta 105 artikuluek diotena, 90 eta 91. Artikuluarekin batera

KONTUAN HARTURIK Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilak 2ko 7/1985Legearen 22.2c) eta 47.3ll) artikuluek jasotzen dutena

Udalbatza honek, aho-batez (gehiengo absolutuez gutxienez),

ERABAKI DU

Lehenago: Lizartzako Udalak aurkeztutako, Lizartzako Arau Subsidiarioen Arau Aldaketaren Dokumentuaren agiriari, A.3 Plaza Soro Eremuaren Lizartzan eraiki nahi den Lehen Hezkuntzako Ikastetxe berriaren ahalbidetzen duena, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeak eskatuta eginiko aldatetekin, behin behineko onarpena ematea.

Bigarren: Lizartzako Udalak aurkeztutako, Lizartzako Arau Subsidiarioen Arau Aldaketaren Dokumentuaren agiriari, A.3 Plaza Soro Eremuaren Lizartzan eraiki nahi den Lehen Hezkuntzako Ikastetxe berriaren ahalbidetzen duena, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeak eskatuta eginiko aldatetekin, behin betiko onarpena emateko, Gipuzkoako Foru Aldundiara bidaltzea.

4.- LIZARTZAKO HARROBIAREN INGURUMEN ETA PAISAI BERRESKUPENERAKO BALDINTZA PLEGUAK

BALDINTZA JURIDIKO ADMINISTRATIBOEN AGIRIA, LIZARTZAKO AXURDARIO MENDIAREN OINETAN DAGOEN GI-2135 FORU ERREPIDEAREN ALBOKO HARROBIAREN ONTZIA LURREZ BETETZEKO EREMU GISA ERABILTZEKO ADMINISTRAZIO EMAKIDA ARAUTUKO DUENA, EREMU HORI INGURUMENAREN ETA PAISAIAREN ALDETIK BERRESKURATZEKO

1. art.- Agiriaren xedea

Baldintzen agiri honen helburua honako jarduera hauek gauzatzea xede duen administrazio-emakidaren esleipen-baldintzak arautzea da: GI-2135 errepidearen alboan eta Lizartzako Axurdario mendiaren oinean dagoen harrobi zaharraren ontzia indusketako lurrez modu kontrolatuan betetzeko lana ustiatzea eta hala erabiltzea, aipatutako helburua duten egungo instalazioak erabiltzea, harrobi horren eremua ingurumen eta paisaiaren aldetik berreskuratzeko obrak aurrera eramatea –betetze-lanak horren zati dira– eta egungo instalazioak modu hautakorrean desegitea, kentzea eta eraistea.

2. art.- Kontratuaren xedea



LIZARTZAKO

UDALA

GIPUZKOA

Obra emateko kontratu honen helburua harrobia ingurumen aldetik berreskuratzea da, honako jarduera hauek gauzatzearen emaitza gisa: harrobiaren ontziaren eremua indusketako lurrez modu kontrolatuan betetzeko erabiltzea aldi baterako, horretarako ingurumen eta paisaiaren aldetik gauzatu beharko diren egokitzapen-lanak, bai eta egun dauden instalazioak modu hautakorrean desegin, kendu eta eraistea ere. Berreskuratze-lana baldintzen agiri honetan ezarritakoari eta dagokion esleipen-akordioan Lizartzako Udalak ezarriko dituen baldintzei jarraiki egingo da.

3. artikulua.- Arau erregulatzailerak

1. Honako hauek arautuko dute kontratua:

- Agiri honetako klausulek.
- 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuen 30/2007 Legearen testu bategina (SPKLTB) onartzen duena.
- Urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretua, zeinaren bidez Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen baita, SPKLTBri kontrajartzen ez bazaio.
- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea.
- 1955eko ekainaren 15eko Dekretuak onartutako Tokiko Korporazioen Zerbitzuen Erregelamendua.
- Ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuak onartzen duen Tokiko Erakundeen Ondasunen Erregelamendua.

2.- Honako hauek arautuko dute obren eta instalazioen gauzatzea:

Egun dauden instalazioak modu hautakorrean desegiteko, kentzeko eta eraisteko lanak gauzatzeko proiektua. Horrek Lizartzako Udalarekin adostutako ideiak garatuko ditu, dagokion unean emakidaren esleipendunak aurkeztu, eta Udalak onespina eman beharko dio. Gauzatze-proiektuak betetze-lanaren ustiapenari eta horrekin lotutako obrei (euste-obrak, drainatzea, eta abar) buruzko zehaztapenak ere aztertuko ditu, eta plegu honek barne hartutako nahiz kontratua esleitzeko orduan Udalak ezarri ahal izango dituen oinarritzko irizpideak garatuko ditu.

3.- Modu kontrolatuan ontzia lurrez betetzeko lanaren aldi baterako ustiapena aipatutako proiektuak izan beharko duen berariazko baldintzen agiriak arautuko du. Agiri hori udalak onartu beharko du.

4. art.- Esleitzeko modua



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

Baldintzen agiri honen xede den emakida lehiaketa publiko bidez egingo da, prozedura irekiaren bitartez.

5º. art.- Harreman mota

- 1.- Lehiaketaren esleipendunaren eta Udalaren arteko harremana administrazio-emakidari dagokiona izango da, eta barne hartuko ditu, alde batetik, ontzia lurrez betetzeko lanak aldi baterako ustiatzeko eta harrobia ingurumenaren aldetik berreskuratzeko obrak, eta, bestetik, egun dauden instalazioak modu hautakorrean desegiteko, kentzeko eta eraistekoak. Era horretan, ezin izango dira barne hartu obraren gauzatzeari dagozkion efektu juridikoak, ontzia indusketako lurrez modu kontrolatuan betetzeko lanen ustiapenarekin lotutakoak gorabehera.
- 2.- Udalak ez du aipatutako betetze-lanaren finantzazioan parte hartuko, ez eta harrobia ingurumenaren aldetik berreskuratzeko egin beharreko obra eta jarduketetan edo egun dauden instalazioak modu hautakorrean desegin, kendu eta eraistekoetan ere. Halaber, ez dio gutxieneko bilketa edo errendimendurik bermatuko emakidadunari, eta inola ere, ez ditu abalatuko ustiapena finantzatze aldera esleipendunak hitzartu ditzakeen jesapenak edo kreditu-eragiketak.

6. art.- Administrazio-emakidaren indarraldia

- 1.- Emakidak, gehienez ere, sei urte iraungo du, administrazio-emakidaren esleipena jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Aldeek hala adostuz gero eta kausa justifikatuak direla medio, beste bi urtez luzatu ahal izango da; horretarako, formalki eskatu beharko da, hasieran adierazitako epea bukatu baino hiru hilabete lehenago, gutxienez. Epe horren barruan Udalak onartu beharreko gauzatze-proiektuan zehaztutako obra guztiak amaitu beharko dira.

Era berean, eta gauzatze-proiektuaren ondoriozko guztizko betetze-bolumena oinarri hartuta, aurreko epea egokitzeak jo ahalko da, bertan aurreikusitako urteko m³-en arabera, betiere.

- 2.- Edozein kausa tartean dela emakida amaitzen denean, egindako obrak, instalazioak eta zerbitzuak Udalari itzuliko zaizkio oso-osorik, ondo zainduta eta kargarik eta zamarik gabe. Indarraldia amaitu ostean, emandako eskubide guztiak iraungiko dira.

7. art.- Kanona

Esleipendunak ordaindu beharreko kanona emakida jasoko duen lizitazio onuragarriena zehazten duen ebazpenak ezarriko du behin betiko, eta eskaintako obrak gauzatzeko lizitazio horren aurrekontuarekin bat etorriko da. Emakidaren erreferentziak, hortaz, gauzatuko diren obren sailak eta euren neurketa dira, Udalak



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

onartu beharreko gauzatze-proiektuak ezarritako moduan. Eta berdin mantendu beharko dira, nahiz eta obraren kostu unitarioak denboran zehar aldatu.

Edonola ere, bi aldeek hala adostuz gero, Udalak eta emakidadunak sailak eta euren neurketa berriro zehaztu ahal izango dituzte obra egin bitartean, baldin eta gauzatuko den obraren ondoriozko azterketa ekonomikoa azterketa kontratatuaren berdina bada, prezio eguneratuan.

8. art.- Emakidadunaren betebeharrak orokorrak

Emakidadunak honako betebeharrak ditu:

- 1.- Obraren behin betiko bermea ematea. Zenbatekoa prozedura honen barruan egingo diren obrak gauzatzeko proiektuaren guztizko prezioaren % 10 izango da.

Bermea eskudirutan edo abal moduan eman ahal izango da, eta hura eratzeko epea hamabost egun baliodun izango dira, esleipena jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Eman beharreko bermea kalkulatzeko, kontuan hartuko dira bai egun dauden instalazioak desegiteko proiektua bai, betetze-lanak gauzatzeko eta eremua ingurumen eta paisaiaren aldetik berreskuratzeko proiektua.

Bermeak gauzatuko diren lanen fasearen arabera eta horien proportzio berean emango dira, eta lanok egindakoa eta bermealdia amaitutakoan itzuliko dira, baldin eta obraren kontratu-betebeharrak guztiak bete badira.

- 2.- Beharrezko azterketak eta proiektuak egitea eta beren idazketa ordaintzea. Horiek guztiak oinarri gisa hartuko dira GI-2135 foru-errepidearen alboan dagoen harrobia ingurumenaren aldetik berreskuratzeko eta instalazioak modu hautakorrean desegiteko, kentzeko eta eraisteko organo eskudunen aldetik beharrezko baimenak eskuratzeko espedienteak izapidetzeko.
- 3.- GI-2135 foru-errepidearen alboan dagoen harrobia ingurumenaren aldetik berreskuratzeko lanak gauzatzea, organo eskudunen baimen eta lizentziak eta indarreko ingurumen, segurtasun eta osasuneko araudia oinarri hartuta.
- 4.- Betetze, euste, drainatze eta gainerako lanen eta Udalak onartuko duen amaierako eremua egokitzeko obraren gainerako erantzukizuna hartzea. Obrak ezarritako epean eta baldintzei jarraiki egin beharko dira, eta baimendutako aldaketak baino ezingo dira egin.



LIZARTZAKO

UDALA

GIPUZKOA

- 5.- Lanak behar bezala egitea, horren erantzule izanik; hala, bere giza baliabideak eta bitarteko materialak erabiliko ditu horiek zaintzeko, lanetan bertan jarritako arduradunaren zuzendaritzapean. Lanetako sarbidea, lan eremuetako zirkulazioaren erregulazioa eta arriskutsuak izan daitezkeen gunek, eremu horretan zein inguruan, adierazteko beharrezko seinaleak ipini beharko ditu; halaber, lanen izaeragatik pertsonen eta ondasunen segurtasunerako behar diren neurri guztiak ere hartu beharko ditu.
- 6.- Aurreko paragrafoan ezarritakoa hautsiz gero, egindako lan ororen erantzule izango da kontratista, bai eta bere ardurapeko lanak gauzatzearen eta lurrez betetzeko zerbitzuaren funtzionamenduaren ondorioz sortzen direnena ere.
- 7.- Obrei ekin aurretik, kontratistak aseguru-poliza bat izenpetu beharko du. Poliza horretan jasoko da kontratazio honetan, emakidadunak zuzeneko edo zeharkako erantzukizunetik salbuesten duela Udala, horien jatorriak pertsoneri eta ondasunei eragindako kalteak eta obren gauzatzea edo ontzia lurrez betetzeko lanaren ustiapena diren kasuetan. Hala, kontratua gauzatzearen ondoriozko kalte-galera guztien ordaina eman beharko die hirugarrenei.
- 8.- Emakidadunak, edozein unetan, Udalak obren gauzatzearen eta zerbitzuaren ustiapenaren inguruko ikuskapen teknikoa eta ekonomikoa egitea eta zuzeneko kontrola izatea ahalbidetu beharko du, obrak eta betetze-lanaren kudeaketa behar bezala gauzatzen direla bermatze aldera.

Era berean, barneko linea eta zerbitzuak zaintzeaz eta konpontzeaz arduratzen direnei instalazioetara sartzeko aukera emango die, dela aipatu lanak egiteko dela beharrezko berritzeak edo handitzeak egiteko.
- 9.- Udalari itzuli beharko zaizkion emakidaren xede diren ondasunak ez besterentzea, ez eta kargatzea ere, Udalak horretarako baimenik eman ezean.
- 10.- Amaieran lortuko den eremua egokitzeko obren gauzatze-proiektua bere kontura egitea. Proiektuak Udalarekin adostutako ideiak garatu beharko ditu, eta Udalean aurkeztu beharko da gehienez hiru hilabeteko epean, esleipen-akordioan eska daitezkeen egokitzapenak edo aldaketak jasotzen dituen esleipen-kontratua formalizatzen denetik kontatzen hasita. Era berean, eta proiektua behin betiko onartu aurretik, Udalak bere txostenean egokitzat jotzen dituen aldaketak – halakorik balego– txertatuko ditu. Adierazitako proiektuak betetze, euste, drainatze eta bestelako lanak, betetze-lanaren ustiapenarekin lotutakoak eta landa-parkea egokitzekoak aztertuko ditu. Proiektuaren edukia eta irismena zehazteko, esleipen-prozedura honetan aplikagarriak diren baldintzen agiritako zehaztapenak oinarritzat hartuko dira, bai eta aplikagarria den araudi teknikoak ezarritako eta aztertutako obrak modu egokian definitu eta gauzatzeko beharrezkoa den dokumentazioa ere.



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

- 11.- Legeari jarraiki, betetze-lanak eta horien ustiapena egiteko beharrezkoak diren baimenak kudeatzea udalez gaindiko instantzietan (Eusko Jaurlaritza).
- 12.- Obra gauzatzeaz eta koordinatzeaz arduratuko diren langile teknikoki gaituak izendatzea eta udalari horien inguruan jakinaraztea, lanak hasi aurretik.
- 13.- Udalez gaindiko instantziek (Eusko Jaurlaritza) ontzia lurrez betetzeko lana ustiatzeko baimenean ezarritako baldintzak betetzea –halakorik balego–.
- 14.- Udalak onartu beharreko proiektuan aurreikusitako obrak gauzatzea Udalak izendatutako zuzendaritza fakultatiboaren aginduak betez.
- 15.- Gauzatze-proiektuan aurreikusitako obrak kontratuan zehaztutako epeetan hasi eta bukatzea.
- 16.- Obran zein instalazioetan beharrezko konponketa guztiak egitea, irismena eta kausa gorabehera.
- 17.- Kontzeptu hauek ordaintzea:
 - Betetze-lana ustiatzeko emakidari dagokion kanona.
 - Kontratua prestatzearen eta formalizatzearen ondoriozko gastuak eta zergak (besteak beste, obraren behin betiko bermea).
 - Segurtasun eta osasunaren arteko koordinazioaren gastuak, obrak egin bitartean. Lizartzako Udalak izendatuko duen enpresa homologatu batek egingo du lan hori, eta gehienez 10.000 (hamar mila) euro ordainduko ditu urtean.
 - Obrak eta instalazioak zaintzea.
 - Ura eta energia elektrikoa hornitzea, zaborra eta hondakin-urak hustea.
 - Administrariak eta mantentze-lanetarako langileak.
- 1.- Betetze-lanaren ustiapena baldintzen agiri honetan, aplikagarria den ingurumen-araudian eta emakidaren edukia osatzen duten gainerako dokumentuetan aurreikusitako moduan egitea.
- 2.- Administrazio-kontratazioaren araudi erregulatzailan eta Tokiko Korporazioen Zerbitzuen Erregelamenduan ezarritako emakida honetan jatorria duten betebeharrak betetzea.

9. art.- Udalaren ahalak



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

Udalak honako ahal hauek izango ditu:

- 1.- Kontratua interpretatzeko eskubidea, eta kontratua betetzerakoan sortzen diren zalantzak ebaztekoa.
- 2.- Emakidadunaren kudeaketa fiskalizatzea, emakidaren xede den dokumentazioa ikuskatzea eta prestazioa mantentzeko edo berrezartzeko aginduak ematea.
- 3.- Egindako arau-hausteengatik dagozkion zuzenketak ezartzea emakidadunari.
- 4.- Emakida bahitzea.
- 5.- Zerbitzua bertan behera uztea.
- 6.- Ez-ordaindutako kanonak ordaintzea eskatzea, premiamendu-bidez.

10. art.- Betetze-lana kudeatzea eta ustiatzea

Modu kontrolatuan ontzia lurrez betetzeko lana ustiatzeko emakidaren esleipendunak betetze-lanetan erabiliko diren materialak onartzeko, hautatzeko eta kontrolatzeko baldintzei men egingo die. Horiez gain, Udalak onartu beharreko proiektuaren baldintzen agiri teknikoan eta emakida esleitzeko ebazpenean ezarritako lan horiek gauzatzeko baldintzak ere bete beharko ditu.

11. art.- Azpikontratazioa

- 1.- Kontratuaren xede diren obrak azpikontratatu ahal izango dira, Udalari alde aurretik idatziz jakinarazten bazaio eta hitzartuko den obra zehazten bada.
- 2.- Betetze-lanaren ustiapena zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratu gisa hartuko da, eta prestazio gehigarrietarako baino ezingo da azpikontrataziorik egin.

12. art.- Bermealdia

- 1.- Kontratista betetzeko eta parkea egokitze lanetan antzeman daitezkeen efektuen erantzule izango da, obrak hasten direnetik bermealdia amaitzen den arte.
- 2.- Obren bermealdiak urtebete iraungo du, udalak obra jaso eta harpen-akta egiten duen egunetik kontatzen hasita.
- 3.- Kontratatista obren eta kalte-galeren gaineko erantzukizuna hartuko du hamabost urtez, obraren harpen-akta egiten den egunetik kontatzen hasita, baldin eta horien jatorria kontratua ez betetzeagatik eraikinak ezkutuan dituen akatsak badira.



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

13. art.- Arau-haustek eta zehapenak

1.- Arau-haustek: obrak gauzatzean eta zerbitzua ustiatzean emakidadunak egiten dituen arau-haustek oso larriak, larriak edo arinak izango dira:

a. Arau-hauste oso larriak:

- Onartutako proiektua modu nabarmenean aldatzea eragiten duten obra-aldaketak.
- Obrak eskatutako segurtasun-neurriei jarraiki ez gauzatzea.
- Obrak etengabe gelditzea, ezinbesteko kasuetan salbu.
- Eraikuntzan ezkutuko akatsak egotea, emakidadunak doloz ez betetzeagatik.
- Baldintzen agiri honetan eskatutako aseguru-polizak ez izenpetzea, edo hemen eskatutako baldintzak ez beste batzuei jarraiki izenpetzea.
- Aseguru-polizen agiriak ez ordaintzea epemuga iristean.
- Zerbitzuaren prestazioa ez hastea edo geldiaraztea, ezinbesteko kasuak direnean salbu.
- Betetze-zerbitzua akatsekin edo modu irregularrean eskaintzea.
- Betetze-zerbitzua lagatzea, azpierrean ematea edo eskualdatzea udalak alde aurretik baimenik eman gabe.
- Obran zein instalazioetan beharrezko konponketa guztiak ez egitea, irismena eta kausa gorabehera.
- Baldintzen agiri honetako emakidarentzat ezarritako edozein betebeharrak ez betetzea.
- Santa Barbara landa-parkearen egokitzapen-obrak gauzatzeko proiektua ezarritako epean ez idaztea.
- Obren zuzendaritza fakultatiboak obrak gauzatzeko xedatutako aginduak eta jarraibideak ez betetzea.
- Urtebetean hiru arau-hauste larri egitea.

b. Arau-hauste larriak:



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

- Lan, segurtasun, higiene eta gizarte-segurantzako betebeharrak ez betetzea obra edo zerbitzuko langileekiko.
- Udalaren eskakizunei eta ebazpenei men ez egitea.
- Obrak egingo diren eremua baimendutakoa ez beste helburu baterako erabiltzea.
- Urtean hiru arau-hauste arin egitea.

c. Arau-hauste arinak:

- Betebeharrak betetzean, arrazoirik gabe arduragabekeriak edo zabarkeriak jokatzea.
- Betetzeari ez dagozkion instalazioak eta beren sarrerak ondo zainduta eta garbi ez edukitzea, eta beharrezkoak diren poliziak ez egotea.
- Baldintzen agiri honetan zein emakida hau arautzen duten gainerako arauetan erabiltzailearentzat zehaztutako eta aipatu ez diren betebeharrak ez betetzea.

2.- Zehapenak: Arau-hausteen batzordeak Udalak honako zehapen hauek ezartzea eragingo du:

- 1.- Esleipendunak berari dagozkion betebeharrak betetzen ez baditu, Udalak horiek betetzea eska dezake, edo kontratua suntsiarazi.
- 2.- Esleipendunak fidantza eratzeko edo agertzeko betebeharrak betetzen ez baditu, kontratua egiteko betebeharrak betetzen ez baditu edo hura adierazitako baldintzetan formalizatzea galarazten baldin badu, esleipena efekturik gabe gelditu ahalko da, eta ondorioak fidantza konfiskatzeari eta kalte-galeren ordainei buruzko legean aurreikusitakoak izango dira.
- 3.- Obren gauzatzea atzeratuz gero, atzeratutako egun bakoitzeko 200 euroko isuna ezarriko da.
- 4.- Axurdario landa-parkea egokitzeko obrak gauzatzeko proiektua ezarritako epean aurkezten ez bada, 300 euroko isuna ezarriko da egun bakoitzeko. Arau-hauste arinei ohartarazpen-zehapena ezarriko zaie kasu guztietan; horretaz aparte, 300 eurora arteko isunekin ere zigortu ahal izango dira. Urte batean hainbat ohartarazpen metatuz gero, kontratua suntsiarazi daiteke.



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

- 5.- Arau-hauste larriak isunekin zigortuko dira (301-1.200 eurotik hasi eta behin betiko fidantzaren zenbateko osora artekoak), ekintzok direla-eta harreman juridikoan gerta daitezkeen erantzukizun edo ondorioei kalterik egin gabe.
- 6.- Emakidadunak bere oinarrizko betebeharretan arau-hauste larriak egiten baditu, emakida suntsiaraziko da.
- 7.- Emakidadunak zerbitzu publikoa ondo ematea arriskuan jartzen duten arau-hauste larriak egiten baditu, Udalak emakida bahitu ahal izango du.
- 8.- Arau-hauste oso larriak isunekin zigortuko dira (1201-2400 eurotik hasi eta behin betiko fidantzaren zenbateko osora artekoak), ekintzok direla-eta harreman juridikoan gerta daitezkeen erantzukizun edo ondorioei kalterik egin gabe.
- 9.- Arau-hauste larriak edo oso larriak behin eta berriz errepikatzen badira, kontratua suntsiarazi eta emakidadunaren desgaikuntza-adierazpena egingo da.
- 10.- Isunak aplikatzeak ez du esan nahi Udalak ez duela aukerarik kontratua ez betetzeagatik kalte-galeren ordainik jasotzeko.

14. art.- Emakida bahitzea

Kontratazio-organoak, emakidadunari entzunaldia eman ondoren eta SPKLTBren 251. artikuluan aurreikusitako baldintzei jarraiki, emakida bahitzeko erabakia hartu ahal izango du, baldin eta emakidadunak ezin badu, berari ez dagozkion kausengatik, aldi batez obra publikoa ustiatu eta hori dela-eta gizarteari kalte larria eragiten bazaio, edo berari ez dagozkion kausengatik betebeharrak larriki huts egin eta ustiapena arriskuan jartzen badu, edo betebeharrak larriki huts egin eta ustiapena arriskuan jartzen badu. Kontratazio-organoaren erabakia emakidadunari jakinaraziko zaio, eta, emakidadunak, horretarako emandako epearen barruan, okerra zuzentzen ez badu, emakida bahitu egingo da.

15. art.- Emakida iraungitzea

Emakida iraungitzea SPKLTBren 266-272. artikuluetan adierazitako kasuetan eta moduetan egingo da. Erabakia ofiziozko kontratazio-organoak har dezake, edo kontratistari entzunaldia ematea bermatuko duen prozeduraren bidez egin kontratistak hala eskatzen badu, eta SPKLTBren 271. artikuluan aurreikusitako efektuak izango ditu.

16. art.- Parte hartzeko gaitasuna

- 1.- Kontratazio honetan parte hartu ahal izango dute erabateko nortasun juridikoa eta jarduteko gaitasuna duten pertsona fisiko zein juridikoek, obrak gauzatzeko behar



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

besteko kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa edo profesionala egiaztatzen badute. Euren helburu edo jarduerak kontratuaren xedearekin harreman zuzena izan beharko du, bakoitzaren estatutuetan edo sortze-arauetan jasotakoaren arabera, eta hala egiaztatu. Azkenik, obra eta lan guztiak egiteko langile eta elementu material nahikoa duen erakunde bat izan beharko dute eta ezingo dira egon SPKLTBren 60. artikulua zehaztutako ezein salbuespen-egoeretan.

- 2.- Bere izenean parte hartu ahalko dute, edo ahalorde askietsiaren bidez baimendutako beste pertsona batek ordezkatura.
- 3.- Ahalordeak eta nortasuna egiaztatzen duten dokumentuak proposamenarekin batera aurkeztuko dira, eta Udaleko idazkariak askietsiko ditu proposamena aurkeztu baino gutxienez 24 ordu lehenago.
- 4.- Kontratua pertsona edo entitate bakarrarekin gauzatuko da. Hala ere, bi pertsona edo gehiagorekin egin ahal izango da Udalarekiko betebeharrak solidarioa badute, edo aldi baterako elkartutako enpresak badira. Bi kasuetan, eskubideak banaezinak izango dira, eta kontratuak eskritura publiko gisa formalizatzeko eta ordezkari edo ahalduen bat izendatzeko epea hamabost egunekoa izango da, kontratuaren esleipena jakinarazi eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.
- 5.- Kontratu honetan parte hartzeko ezinbesteko baldintza izango da antzeko lanak egin izana, bai talde teknikoari bai obra gauzatzear arduratzen den taldeari dagokienez.

17. art.- Lizitazio-espeditentea

1.- Espeditentea

Lizitazio honen espeditentea, baldintza juridiko eta ekonomikoen agiriak eta oinarri teknikoen agiriak osatzen dutena. Hura Lizartzako Udalak aztertu ahal izango du, 9:00etatik 13:00etara bitartean.

2.- Lizitazio mota

Lizitazioan honako alderdi hauek jasoko dira:

- a.- Axurdario mendiko harrobiaren eremua ingurumenaren eta paisaiaren aldetik berreskuratzeko jarduketari eta amaieran lortuko den eremuaren diseinu eta funtzionaltasunari buruzko proposamenen egokitasuna.
- b.- Parkea egokitzeko obraren autofinantzaketa-programaren irismena. (emakidaren kanona zehazteko eskaintza ekonomikoa).



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

c.- Obrak gauzatzeko programa, eta ontzia betetzeko lanak eta parkea egokitzeko faseak koordinatzeko proposamena.

d.- Betetze-lana ustiatzeko emakidaren iraunaldia eta amaieran lortuko den eremua egokitzeko obrak gauzatzeko epea.

3.- Gutun-azal itxiak aurkeztea:

Proposamenak Udaleko Sarrera Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira, 9:00etatik 13:00etara bitartean eta berrogeita bost egun naturaleko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Proposamenak postaz bidali ahalko dira, Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorrean aurreikusitakoa betez. Proposamenak aurkezteko azken eguna larunbata balitz, hurrengo egun baliodunera arte luzatuko da epea.

Proposamenak hiru gutun-azal itxi eta zenbakitutan aurkeztuko dira, eta honako dokumentu hauek izango dituzte:

«A» GUTUN-AZALA. DOKUMENTAZIO ADMINISTRATIBOA

1.- Proposamena aurkezten duen pertsonaren NANA, bai bere izenean jardun duenean bai ordezkari gisa aritzen denean, hau da, lizitatzaila bere izenean ez aritzen ez bada edo komunitate, gizarte edo pertsona juridiko bat baldin bada; ahalorde askietsi horrek Merkataritzako Erregistroan behar bezala jasota egon beharko du.

2.- Merkataritzako Erregistroan behar bezala izena emanda dagoen sozietate edo komunitatearen sortze- edo aldatze-eskrituren, estatutuen edo erregelamenduaren izapidetutako fotokopiak.

3.- SPKLTBan zehaztutako kontratazio-debekurik ez izatearen lizitatzailaren adierazpena; zehazki, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean edukitzearen ziurtagiria aurkeztu beharko da.

4.- 2.000 euroko behin behineko fidantza eratu izanaren egiaztagiria.

5.- Eraikitzailea honakoari jarraiki sailkatu izanaren egiaztagiria:

TALDEA	AZPITALDEA	KATEGORIA
A	1	C
A	2	C
G	6	C
K	6	C



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

- 1.- Zerga-betekizunak (ekonomia-jardueren gaineko zergan alta ematea, langileak alta eman izanaren adierazpena, Gizarte Segurantzarekin zorrik ez izatea) egunean edukitzearen administrazio-ziurtagiria edo berariazko erantzukizunpeko adierazpena. Esleipendunak behin betiko bermearekin batera aurkeztu beharko du ziurtagiria.
- 2.- Epaitegi eta auzitegi motaren jurisdikzioari men egingo diotelako atzerriko enpresen adierazpena.

Euskal Autonomia Erkidegoko kontratazio-araubideari buruzko ekainaren 5eko 136/1996 Dekretuak arautzen duen Kontratisten Erregistroan izena emanda dauden lizitzaileek erregistroak jaulkitako izen-ematearen ziurtagiriaren kopia konpultsatua aurkeztu ahal izango dute gaitasunari eta kaudimenari buruzko dokumentuen orde, baldin eta hura indarrean badago.

Era berean, Ekonomia eta Ogasun Ministerioko Kontratuen Erregistroak baldintza beretan jaulkitako ziurtagiria aurkeztu ahal izango da aipatu dokumentazioaren orde.

«B» GUTUN AZALA. PROPOSAMEN EKONOMIKOA

«C» GUTUN AZALA. MEMORIA TEKNIKOA

Axurdario mendiko harrobiaren eremua ingurumenaren eta paisaiaren aldetik berreskuratzeko jarduketei buruzko proposamenak irudikatze zehazten den dokumentazio teknikoa, lehiaketa hau arautzen duen oinarri teknikoen agiriaren 3. eta 4. atalek ezarritakoari jarraiki.

Gutun-azal guztietan honako inskripzio hau idatzita egon beharko da:

«Harrobi zaharra lurrez betetzeko lana ustiatzeko eta ingurumenaren aldetik berreskuratzeko kontratazioan parte hartzeko proposamena». Aurkezten duenak sinatuko du, eta entregatu ostean agiri edo ziurtagiri bat jaulki ahal izango da.

Proposamenak postaz bidali ahal izango dira, indarreko araudian aurreikusitakoa betez.

18. art.- Proposamenak irekitzea

Aldez aurretik, kontratazio-mahaiak garaiz eta modu egokian aurkeztutako dokumentuak kalifikatuko ditu. Aurkeztutako dokumentazioan akats materialik behatzen badu, berau konpontzeko hiru egun eman ahalko dizkio lizitzaileari. Gutun-azal itxiak irekitzeko ekitaldi publikoa udaletxeko bulegoetan izango da, proposamenak



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

aurkezteko epea amaitu eta laugarren egun baliodunean, arratsaldeko ordu batetan. Larunbata bada, hurrengo egun baliodunean egingo da ekitaldia.

Mahaiko buruak proposamenak irakurriko ditu, eta ondoren, baldintzen agiriak eskatutako dokumentazio guztia atxikita ez dutenak baztertu ahal izango ditu, bai eta ereduari jarraiki egin ez direnak ere, lizitatzaile, prezio, epe eta abarren inguruko zentzuzko zalantzak eragin ahal dituztenean, betiere.

Kontratazio honetarako espedientea Udaleko zerbitzu teknikoek aztertuko dute, eskaintako proposamenak balioztatzeke helburuarekin. Hona hemen irizpideak eta beren puntuazioa, garrantzi handienekotik txikienera zerrendatuta.

- 1.- Eremua ingurumenaren aldetik berreskuratzeko proiektua gauzatzeko eta amaieran lortuko den eremuak etorkizuneko erabilera izateko egingo den inbertsioaren balio ekonomikoa, ontzia lurrez betetzeko lana ustiatzeko emakidaren kontraprestazio edo kanon gisa30 puntu.
- 2.- Axurdario mendiko harrobiaren eremua ingurumenaren eta paisaiaren aldetik berreskuratzeko jarduketei eta amaien lortuko den eremuaren diseinu eta funtzionaltasunari buruzko proposamenaren egokitasuna30 puntu.
- 3.- Amaierako eremua egokitzeko obrak gauzatzeko faseen epeak eta programa, betetze-lanekin koordinatuta20 puntu.
- 4.- Axurdario mendiko harrobiaren eremua ingurumenaren eta paisaiaren aldetik berreskuratzeko proiektua aurrera eramango duen taldearen baliabide teknikoak eta giza baliabideak10 puntu.
- 5.- Axurdario mendiko harrobiaren eremua ingurumenaren eta paisaiaren aldetik berreskuratzeko jarduketak aurrera eramateko eraikuntza-enpresak dituen baliabide teknikoak eta giza baliabideak10 puntu.

19.- Esleitzea eta formalizatzea

Kontratazio-organoak, aurretik dagozkion txosten teknikoak egin ostean, kontratua esleitzeko du eskaintzak aurkezteko epea amaitzen denetik gehenez bi (2) hilabeteko epean, 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 161.2 artikulua xedatu bezala. Esleipena epe horretan ematen ez bada, enpresariak bere proposamena kentzeko eskubidea izango du, bai eta, hala badagokio, jarritako bermea itzultzekoa ere.

Kontratuaren esleipena sektore publikoko kontratuei buruzko azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 151. artikuluan ezarritako izapideei jarraiki egingo da. Era horretan, kontratazio-organoak onuragarrietik hasita sailkatuko ditu



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

eskaintzak, baldintzen agirietan ezarritako irizpideak oinarri hartuta. Ondoren, horietan onuragarriena aurkeztu duen lizitatzailari hurrengo dokumentu hauek aurkezteko eskatuko zaio, eskaera jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita hamar (10) egun balioduneko epean: zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duen dokumentazioa (edo, bestela, ziurtagiri hori zuzenean lortzeko baimena emango dio kontratazio-organoari), azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 64.2 artikuluari jarraiki kontratua gauzatzeko erabiliko edo atxikiko dituen bitartekoak benetan dituela egiaztatzen duen dokumentua, eta dagokion behin betiko bermea eratu izanaren ziurtagiria.

Zerga-betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekikoetan egunean egotea honela egiaztatuko da:

- Lizitatzailak helbide fiskala duen Zerga Administrazioak eta zergak ordaintzea eskatzen duten jarduerak egiten edo egin diren Zerga Administrazioek jaulkitako ziurtagiria. Horietan adieraziko da lizitatzaila bere zerga-betebeharretan egunean dagoela.
- Merkataritzakoak ez diren sozietateen edo nortasun juridikorik ez duten entitateen kasuan, ziurtagiria(k) sozietate, entitate edo establezimenduko titularrari edo titularrei buruzkoa(k) izango d(ir)a.
- Jarduera ekonomikoen gaineko zergaren azken ordainagiria, edo jarduera hasi berria bada, zerga horren matrikularen alta kontratuaren xedeari dagokion epigrafean. Halaber, aipatu zergaren matrikulan baja eman ez izanaren erantzukizunpeko adierazpena ere aurkeztu beharko da.
- Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren egiaztatzea, entitate horrekiko kuoten ordainketan lizitatzaila egunean dagoela ziurtatuko duena.

Baldin eta eskatutakoa ez bada behar bezala betetzen adierazitako epean, ulertuko da lizitatzailak erretiratu egin duela bere eskaintza, eta, kasu horretan, dokumentazio bera eskatuko zaizkio hurrengo lizitatzailari, eskaintzak sailkatuta gelditu diren ordenaren arabera.

Kontratazio-organoak kontratuaren esleipena erabakiko du eskaintzarik onuragarriena aurkeztu duen lizitatzailaren dokumentazioa jaso eta hurrengo bost (5) egun balioduneko epean, eta kontratuaren behin betiko baldintzak zehaztu eta ezarriko ditu.

Esleipena kontratazio-organoak erabakiko du ebazpen arrazoituaren bidez; ebazpen horretan kanporatutako lizitatzailak edo baztertutako hautagaiak **esleipen-erabakiaren aurka errekurtsoa aurkezteko behar duten informazio guztia adierazi beharko da.** Erabakia, halaber, hautagai edo lizitatzaila guztiei jakinaraziko zaie, eta



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

LIZARTZAKO Udaleko kontratatzailearen profilean nahiz Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. **Esleipen-akordioak honako alderdi hauek azalduko ditu:**

- Baztertutako hautagaiei dagokienez, haien hautagaitza atzera botatzeko arrazoiak azalpen laburra.
- Esleipen-prozesutik kanporatu diren lizitatzailerik dagokienez, eskaintza ez onartzeko arrazoiak azalpena; laburra, hori ere.
- Edozein kasutan, esleipendunaren izena eta eskaintza onartu zaien gainerako lizitatzailerik aurkeztutakoan aurrean esleipendunarena lehenesteko erabakigarriak izan diren haren eskaintzaren ezaugarriak eta abantailak.

Jakinarazpena posta elektronikoz egin ahal izango da, proposamenak aurkeztean lizitatzailerik edo hautagaiek zehaztutako helbidera mezu bat bidalita. Aurkeztutako eskaintzaren batek baldintzen agiritan zehaztutako baldintza guztiak betetzen baditu, esleipena erabaki beharko da; ezingo da, inola ere, esleitu gabe utzi.

Hala ere, sektore publikoko kontratuei buruzko azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 155. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, esleipena erabaki aurretik entitate kontratatzaileak kontratua bertan behera utz dezake interes publikoko arrazoiak direla medio, edo izapidetutako prozeduran atzera egin, horretan zuzendu ezin daitezkeen akatsak baldin badaude. Bi kasuetan, lizitazioan parte hartzeak benetan eragindako gastuengatik kalte-ordaina eman beharko zaie lizitatzailerik.

Edozein kasutan ere, kontratua administrazio-dokumentu gisa formalizatuko da, eta agiri hori edozein erregistro publikotan sartzeko titulu nahikoa izango da. Kontratatzaileak hala eskatuz gero, eskritura publiko gisa formalizatuko da kontratua; eta berak ordainduko ditu horren kostuak. Era berean, kontratazio-organoari horren kopia bat eman beharko dio.

Kontratuaz gain, kontratatzaileak administrazio-baldintza zehatzen agiria eta baldintza teknikoaren agiria sinatu beharko ditu, bai eta, hala badagokio, proiektu teknikoa ere, bertan atxikita egongo ez balira.

Esleipendunari egotzi dakizkikeen kausak direla-eta kontratua ez bada formalizatzen, Udalak hura iraungitzea erabaki ahal izango du, aldez aurretik dagokion espedienteak hasita. Espedientean interesdunari entzunaldia eman beharko zaio, arrazoiak behin betiko bermea eratu ez izana bada salbu; kasu horretan, bestelako izapiderik gabe suntsiaraziko da, kalte-galeren ordaina eta guzti.



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

20. art.- Jurisdikzio eskuduna

Prerrogatiba hauek gauzatu bitartean Udalak hartu ditzakeen erabakiak betearazleak dira; horien aurka, interesdunek administrazioarekiko auzien jurisdikziora jo ahal izango dute.

5.- LIZARTZAN SUPERMERKATU BAT ZEHARKAKO KUDEAKETA BIDEZ USTIATZEKO ETA LOKALAREN EKIPAMENDU GAUZATZEKO ADJUDIKAZIOKO ADMINISTRAZIO-KONTRATUAREN LUZAPENA

IKUSIRIK.- Bi mila eta bosteko apirilaren batean, CARMEN SARALEGI GOIKOETXEA eta LIZARTZAKO UDALAREN artean sinatutako, Lizartzan Supermerkatu bat Zeharkako Kudeaketa bidez ustiatzeko Administrazioa Kontratua.

IKUSIRIK.- Administrazio Kontratua horren 2. klausulako 2. artikulua, honela diola:

2.- Kontratuaren prezioa, HIRUREHUN (300,00) + (BEZ) € da; hileru.

Baldintza Pleguetako, V. Klausulak dioenaren arabera, Lizartzako Supermerkatuko lokalaren ekipamendua 66.552,21€ kostatzen denez, CARMEN SARALEGI GOIKOETXEA Andreak, 50%-aren ordainduko du, hau da 33.276,11 €

Horren arabera, kontratu honen indarraldia, kontratu honen dataren hurrengo egunetik aurrera, ZORTZI (8) urtetakoa izango da; hau da, 2005eko Apirilaren 1ean hasi eta 2013ko Martxoaren 11 bitarte.

Ondoren sortu daitezkeen gastuak, proportzio berdinean ordainduko dira eta hitzarmena, tokatzen den epean luzatuko da.

KONTUTAN HARTUAZ.- CARMEN SARALEGI GOIKOETXEA andreak, Administrazio Kontratuak iraun duen bitartean, hainbat gastu burutu dituela:

SEGAR S.L.	197,20
SEGAR S.L.	3.236,40
IBARRA ARGI LANAK	1.197,20
IBARRA ARGI LANAK	1.932,00
GUZTIRA	6.562,80

Era berean, supermerkatuko kudeatzaileak jakinerazten du, hainbat makina aldatu behar direla, gaur egungo beharretara egokitzeko.



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

Baita ere, gaur egungo krisi egoera dela eta, supermerkatuko kudeatzaileak, supermerkatuari dagokion errentaren errebisioa egitea eskatu da.

Guzti hori kontutan hartuz:

PROPOSATZEN DA:

1.- Lizartzan Supermerkatu bat Zeharkako Kudeaketa bidez ustiatzeko Administrazio Kontratuaren 2. klausulako 2. artikulua aldatzea, honela geldituko delarik:

Kontratuaren prezioa, BERREHUN ETA BERROGEITA HAMAR (250,00) + (BEZ) € da; hilerro.

2.- Lizartzan Supermerkatu bat Zeharkako Kudeaketa bidez ustiatzeko Administrazioa Kontratu, burututako gastu eta burutzeke daudenak kontutan hartuz, HOGEITASEI hilabetetan luzatzea; hau da: 2013ko martxoaren 12tik 2015eko maiatzaren 11 bitarte.

3.- CARMEN SARALEGI GOIKOETXEA Andreari, erabaki honen berri ematea.

Lizartzan, Supermerkatu bat zeharkako kudeaketa bidez ustiatzeko eta lokalaren ekipamendua gauzatzeko adjudikazioko administrazio-kontratuaren luzapen proposamena aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

6.- ONIK. LURREN PERMUTARAKO ALKATEARI AHALMENAK EMATEA

Lizartzako Udalak, bi mila eta zortziko abenduaren hiruan burututako Bilkura Nagusian, erabaki hau onartu zuela:

1.- ONIK SISTEMAS DE ELEVACIÓN SLri Udalaren honako ondasun hau besterentzea:

a) P2 partzelaren Hegoaldea edo atze aldeko gunea, 667,58 m² dituena, gaur egun jabari publikoa eta “gune libre publikoak” gisa kalifikatua, indarrean dagoen Xehetasun Azterlanean.

b) P2 partzelaren Ekialdea edo eskuin aldeko gunean, 539,00 m² dituena, gaur egun jabari publikoa eta “interes publikoko zerbitzugunea” gisa kalifikatua, indarrean dagoen Xehetasun Azterlanean.

Eta berea den honako ondasun honekin trukatzeari:



LIZARTZAKO

UDALA

GIPUZKOA

“1. eremuko 246 zenbakidun lursaila, Lizartzan dagoena. Katastroaren arabera, 2.389 m²-ko azalera du. Mugak: Iparraldean, hiri-jabetza; Hegoaldean, Pedro Zabala Goñi, Pedro Arrospide Iraeta eta Jesus Maria Elola Iturrioz ditu mugakide; Ekialdean, hiri-jabetza; eta Mendebaldean, Papelera del Araxes du mugakide. Tolosako Jabetza-erregistroan inskribatuta dago, 2063. liburukian, Lizartzako 30. liburuan, 93. orrialdean, 1454 zenbakiarekin.”

2.- Bi aldeek iritsitako akordioari jarraiki, ez da inolako ordianketarik burutuko, bi alderdien aldetik.

3.- Udalaren jabetzakoak diren lurak segregatzeko, erabakia onartzea.

4.- Erkidego Autonomikoaren organo eskumendunari horretarako hasitako espedientearen berri emango zaio ebazpen-akordioa hartu baino lehen, Toki Erakundearen Ondasunen Erregelamenduko 109. artikulua dioena betez.

15 eguneko epean, akordioaren berri jaso duen egunetik hasita, Autonomia Erkidegoak Udalari ohartarazten ez badio, ekintzekin jarraituko da, eta dagokion akordioaren bidez Alkateari ahalmena emango zaio Udalaren izenean trukearen bidezko besterentzearen agiri publikoa sina dezan.

LIZARTZAKO UDALA eta ONIK SISTEMAS DE ELEVACIÓN S.L.-ren arteko permuta burutu ahal izateko, Udaleko Alkatea den, MARIA BEGOÑA BALERDI URDAMPILLETA-ri ahalmena ematen zaio Udalaren izenean trukearen bidezko besterentzearen agiri publikoa sina dezan.

7.- 2012 EKITALDIKO KONTUEN AZTERKETA ETA ONARPENA

Lehendakari jaunak hartu du hitza eta 2012 ekitaldiko Aurrekontuaren eta Ondarearen Administrazioaren kontuak aztertzeari ekingo zaiola esan du, guztiak ere jendaurreko erakustaldian jarriak eta Kontuen Batzorde Bereziak aztertutakoak, Batzorde honek dagokion espedientearen agertzen diren erregelamenduzko txostenak igorri dituelarik.

Idazkariak txosten horien irakurketa azkarra egin ondoren, eta kontu horiek erregelamenduzko ereduak betetzen dituztela eta behar besteko frogagiriak dituztela egiaztatuta, horiei buruzko informazio zabala eskuratu, eta bertaratutako jaun-andreek eskatutako azalpen guztiei erantzuna eman zaielarik, aho batez onartu egin dira.

Bertara etorritako jaun-andreei ohartarazi zaie 781/1986 Legegintza Errege Dekretuaren 460-5 artikuluari jarraiki, nolana ere, Kontu Epaitegiaren kanpo



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

fiskalizazioaren menpe jarri behar direla eta aipatu artikulu horren aplikazioan, kontuak onartzeagatiko erabakiak, akats eta oztopoen zuzenketak hala nola okerrak konpontzeko prozedurak, betearazleak izango direla.

8.- 2013 URTEKO AURREKONTUAREN 1/2013 KREDITU ALDAKETA

Udal honetako Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea irakurri da.

Idazkari-Kontu hartzaileak egindako txostenak dioenez, aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Udal Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 foru arauaren 34. artikulua ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Era berean, Ogasun Batzordeak egindako aldeko txostena eta onespen proposamena irakurri dira.

Eztabaidatu ondoren botutara jarri eta bertaratuen aho batez, honako hau

ERABAKI DA

1.- Udal honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea onestea, proposamenaren eta ondoko laburpenaren arabera:

KAPITULUA	KONTZEPTUA	KREDITUAK		
		Egungoak	Aldaketak	Behin-betikoak
162.121.01.05	Langileen Bizi Asegurua	1.800,00	297,54	2.097,54
210.449.01.01	Bestelako Mantenimenduak	15.803,77	15.000,00	30.803,77
211.439.03.01	Udaletxearen Mantenimendua	750,00	89,78	839,78
221.452.04.04	Frontoiako Gasa	-----	500,00	500,00
430.451.03.01	Udal Liburutegia	1.000,00	1.000,00	2.000,00
430.454.01.01	Festetako Batzordea	2.000,00	4.000,00	6.000,00
430.452.01.01	Kirolak Batzordea	4.000,00	1.000,00	5.000,00
430.456.01.01	Kultura Batzordea	1.000,00	4.000,00	5.000,00
481.459.01.01	Erakundeei Laguntzak	1.000,00	600,00	1.600,00
GUZTIRA		27.353,77	26.487,32	53.841,09

KREDITU GEHIGARRIAK FINANTZATZEKO PROPOSAMENA

KAPITULUA	KONTZEPTUA	KREDITUAK		
		Egungoak	Aldaketak	Behin-betikoak
410.000.00.99	Erein. Frontoiko Laguntza	-----	7.970,06	7.970,06



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

410.411.01.99	E.J. Osasun Zentruko Gastuak	2.543,00	2.913,49	5.456,49
870.000.00.01	Diruzaintzako Remanentea	-----	15.603,77	15.603,77
GUZTIRA		2.543,00	26.487,32	29.030,32

2.- Jendaurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin-betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

9.- ESPETXEETAN PRESO DAUDENEN SENIDEENTZAT GARRAIORAKO BANAKAKO DIRU LAGUNTZAK EMATEKO 2013 URTEKO DEIALDIA ETA OINARRIAK

I.- XEDEA

1.- artikulua.- Xedea

Oinarri-arau hauen xedea da Lizartzako eman ahal izango dituen diru-laguntzak erregulatzea, aldian behin presoendegietara egiten dituzten bitak direla-eta zigorraz preso dauden edo prebentzioz kartzelaturik dauden pertsonen sendiei sortzen zaizkien joan-etorrien gastuak zati batean diruz laguntzeko.

Diru-laguntzek bete nahi dituzte zati batean zigorraz preso dauden edo prebentzioz kartzelaturik dauden pertsonen sendiei sortzen zaizkien gastu handiak, aldian behin presoendegietara egiten dituzten bitak direla eta.

2.- artikulua. Ezargarri den araudia

Diru-laguntza hauek ematerakoan, eta onuraduna eta erakunde emailea elkarrekin lotuko dituen harreman juridikoa finkatzerakoan, oinarri hauek eta diru-laguntzak ematen direnean indarrean diren arauak bete beharko dira: Lizartzako udalak diru-laguntzak emateko ordenantza arautzailea (2012ko azaroaren 27ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 226 zk.).

Oinarri hauetan aintzat hartu ez diren kontu guztietarako, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak (Estatuko Aldizkari Ofiziala 2003-11-18) eta Lege hori garatzeko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako Arautegiak diotena hartuko da kontuan.

3.- artikulua. Onuradunak



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

Laguntza hauen onuradunak izan daitezke Lizartzakoak izan eta espetxeetan zigorraz preso dauden edo prebentzioz kartzelaraturik dauden pertsonen sendiak, lehenetasun ordena honekin:

- Ezkontidea edo izatezko bikotea.
- Seme-alabak.
- Gurasoak (aita-amak)
- Neba-arrebak

Lehenetasunezko ordena batean sartuta dauden pertsonak kanpoan uzten dituzte, laguntza jasotzeko, lehenetasun maila txikiagonean dauden pertsonak.

Onuradun bakarra egongo da zigorpeko pertsona bakoitzeko edo prebentzio kartzelaz dagoen pertsona bakoitzeko. Baldin eta lehenetasunezko ordena berean sartuta dauden bi edo pertsona gehiago pilatzen direnean, adinez nagusiena bakarrik hartuko da.

Zigorpeko pertsonak edo prebentzioan kartzelan daudenek Lizartzan egon behar dute erroldaturik, diru-laguntza eskabidea aurkezten duten unean bertan.

Dena den, Gizarte Ongizateko batzordeak ahalmena du aztertu eta erabakitzeko aurkeztu daitezkeen kasu berezi guztiak.

II.- ESKAERAK

4.- artikulua. Betebeharrak

Diru-laguntza hauen helburuari dagokionez, diru-laguntzaren onuradunak Lizartzako Udalak diru-laguntzak emateko ordenantza arautzailearen 3. eta 4. artikuluan jasotako baldintzak eta obligazioak bete beharko ditu.

5.- artikulua. Eskabideak aurkeztea

Laguntza horiek jaso nahi dituztenek, Lizartzako Udaletxeko Idazkaritza Nagusian aurkeztu ahal izango dira, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik 30 eguneko epean, Udalak egin duen instantzia ofizialaren ereduari jarraiki (I. Eranskina).

Laguntzak jasotzeko eskaerak ondoko agiriarekin batera aurkeztu beharko dira:

- a) Eskatzailearen nortasun agiriaren fotokopia.



LIZARTZAKO

UDALA

GIPUZKOA

- b) Kartzelaratutakoarekin aipatu den harremana zehazten duen agiri edo aitorpena.
 - c) Zigorpean dagoenaren presondegiko ziurtagiria.
 - d) Bizikidetzako unitateko kide guztien urteko diru sarrerak jasotzen dituen agiria. Araudi honetarako, bizikidetzako unitatetzat hartuko da eskatzailearen helbide berean bizi diren pertsonak.
- Aurreko urteko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren deklarazioak.
 - Bizikidetzako unitateko kide guztien azken nomina edo haien pentsioari buruzko agiria.
 - Zinpeko aitorpena.
 - Lizartzako udalaren alde baimena zerga informazioa eskatzeko Foru Aldundiari.
 - Xede bererako eskatutako edo jasotako bestelako diru-laguntzei buruzko zinpeko aitorpena.
- e) Gizarte Ongizateko batzordeak beharrezko jo dezakeen beste edozein agiri.

Edozelan ere, araudi honetan araututa dauden diru-laguntza eskatzaileek, baldin eta uko egiten badiote artikulua honetako d) hizkian aipatzen den dokumentazioa aurkezteari uko egiten bakiote, eta beste baldintzak betetzen badituzte, oinarri honetan ezarritako gutxieneko diru-laguntza jasotzeko eskubidea izango dute.

Eskabideak aurkezten diren egunetik aurrera, laguntza jasotzeko eskubidea sortuko da, ondorioz, ordainektak, eskatzaileak deialdian eskatutako ziurtagiriak aurkeztu heinean egingo dira.

6.- artikulua. Akatsak zuzentzea

Eskabideak edo harekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioak akatsen bat baldin badu edo osatu gae baldin badago, eskatzaileei hamar eguneko epea emango zaie, jakinarazpena jasotako egunaren biharamunetik hasita, aurkitutako hutsak konpon ditzaten. Emandako epea amaitutakoan akats horiek konpondu gabe baleude, eskaera bertan behera utzi dutela ulertuko da, eta prozedura artxibatu egingo da, 30/1992 Legearen 71. artikuluan xedatutakoarekin bat ebazpena eman eta gero.

III.- DIRU-LAGUNTZAK EMATEA

7.- artikulua. Aurrekontua



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

Programa honen (2013 urtea) xede diren diru-laguntzetarako bideratutako diru kopurua, 10.800,00 €-koa da eta diru-laguntza ataleko 1.0000.480.313.06.01 aurrekontu-partidatik finantzatuko da.

Edozelan ere, jasotako eskabideen arabera organo agintedunak erabakiko du kreditu horretatik guztia edo eta zati bat onartu behar den.

Laguntza jasotzeko eskubidedun eskabide guztiak betetzera iritsiko ez balitz aurrekontu kopurua, handitu egingo da kopuru hori, udal aurrekontua betetzeko arauetan aurrikusten diren kredituak aldatzeko mekanismoen bidez.

8.- artikulua. Diru-laguntzen zenbatekoa

3. artikuluan ezarri bezala, onuradun izateko baldintzak batetzen dituzten presoek xenide guztiek, baldin eta diru-laguntzaren eskaera bete eta aurkezten badut, eskubidea izango dute, gutxienez, diru-laguntza hau eman dakien:

Lizartzatik espetxera zenbat kilometro dagoen (joan-etorria), bider 0,29 € gehi autopistako bidesaria izango da laguntza zenbatekoa. Gehienez hilean 2 bidai laguntza meango da. Banakako diru-laguntza bat ematea proposatuko du Gizarte Ongizateko zinegotzi-ordezkariek, kasu bakoitzaren arabera, eta gehienez, 300 €-ko diru-laguntza izanik hileko.

9.- artikulua. Diru-laguntza ordaintzea

Ekitaldi bakoitzeko (urtekoa) onarturiko diru-laguntza hileroko ordainketa bidez emango da, oinarri-arau hauetako 14. artikuluan aurreikusten diren frogagiriak aurkeztu ondoren.

10.- artikulua. Bete diru-laguntzekin bateragarritasuna

Araudi honetan datozen laguntzak bateragarriak izango dira beste edozein laguntza edo diru-laguntza lortzearekin, helburu horretarako beste edozein administrazio publikotik lortzen badira ere, baina kasu batean ere ezingo da gainditu joan-etorrien gastu guztien kostua.

Emandako diru-laguntzak kostu osoa baino handiagoak izanez gero, itzuli egin beharko zaio Udalari kostutik gorako kopurua.

IV.- PROZEDURA



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

11.- artikulua. Baloratzeko irizpideak. Bete beharreko baldintzak

Gutxienerako bi joan-etorri bidaiak diru-laguntzeko eta diru-laguntzaren zenbatekoa zehazteko ondoko kalkulua egingo da:

Bizikidetzeta-unitateko kide kopurua	%0	%25	%50	%75	%100
1	31.209,12€	27.307,98€	23.406,84€	19.505,70€	15.604,56€
2	40.075,20€	35.064,75€	30.056,40€	25.047,00€	20.037,60€
3	44.330,00€	38.789,52€	33.248,16€	27.706,80€	22.165,44€

12.- artikulua. Prozedura

Gauzatzea eta proposamena.

- 1.- Gizarte Zerbitzuetako talde teknikoari dagokio deialdi honetanaurreikusitako diru-laguntzen kudeaketa lanak burutzea. Eskaerak Gizarte Zerbitzuetako Batzorde Txostengileak aztertu eta ebaluatuko ditu, eta honek ebazpen-proposamena prestatuko du.
- 2.- Diru-laguntzen ebazpen proposamena edo behin-behineko ebazpenaren proposamena interesatuei jakinaraziko zaie eta egoki iritzitako alegazioak egiteko hamar eguneko epea emango zaie.
- 3.- Aurkeztutako alegazioak aztertu ondoren, behin betiko ebazpenaren proposamena egingo da; eta hor zehaztuko da diru-laguntza zein eskatzailei ematea erabaki den, eta diru-laguntzaren zenbatekoa. Diru-laguntza hori hura jasotzeko baldintzak betetzen dituzten eskatzaile guztiei emango zaie, eta beraz, behin-behineko zerrenden ebazpenaren aurka aurkeztutako alegazioak onartu egingo balira, behin betiko zerrendetako diru-kopuruetan aldaketak gerta daitezke.

Ebazpena.

- 1.- Behin betiko proposamen ebazpena onetsi ondoren, Alkateak prozedura ebatziko du oinarrietan dieneraren arabera arrazoitutako ebazpen baten bidez, eta prozeduran kreditatuta egon beharkodute ebazpenerako erabili dituen oinarriak.
- 2.- Ebazpenean berariaz jakinaraziko da gainontzeko eskaerak gaitzetsi direla, beste eskaerarik balego, behintzat.



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

- 3.- Ebazpena erabaki eta jakinarazteko gehienezko epea sei hilabetekoa izango da diru-laguntza deialdia argitaraten den egunetik hasita. Aipatutako epean ebazpenik ez balego, aurkeztutako eskaera atzera bota dela adierazi nahiko du.
- 4.- Ebazpenean diru-laguntzaren zenbatekoa eta ordainketa-era zehaztuko dira.
- 5.- Berariazko ebazpenik eza.

V.- DIRU-LAGUNTZEN KONTROLA

13.- artikulua. Onuradunen betebeharrak

Emandakoa justifikatzeko, erakunde onuradunek Lizartzako Udalaren diru-laguntzak emateko ordenantzaren 4- artikuluan adierazitako bete-behar orokorrak bete beharko dituzte.

Edonola ere, onuradunak honako jakinerazpenak egin beharko ditu:

- Zigorpean dauden edo prebentzioan preso dauden pertsonen eta senideen egoeran izan daitezkeen aldaketak, araudi honetako laguntzekin lotua izan dezaketenak (adibidez, beste espetxe batera eraman izana, aske uztea, bizikidetzako unitatearen osaeran aldaketak izatea edo egoera ekonomia aldatzea, diru-laguntza osagarria jaso ezkerro), idatziz adierazi behar zaizkio eta behar bezala egiaztatu Udaleko Gizarte Zerbitzuetako sailekoei, gehienez ere 30 eguneko epean, hori gertatu denetik.
- Jasotako diru-laguntza itzuli beharko du onuradunak, laguntza hroi emateko ezarritako baldintzak ez baditu betetzen, edota jasotako diru-kopurua gauzatu duen jardueraren kostua baino handiagoa bada.
- Espedientea izapidetzen ari den departamentuak, Udaleko Kontu Hartzailleak, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak edo beste organo skudunen batek eskatutako informazioa emateko bete beharra du onuradunak.

14.- artikulua. Justifikatzeko epea eta modua.

Laguntza ordaindu baino lehen, onuradunak egiaztatu behar du berak edo oinarri-arau espezifikoetako 3. artikuluan agertzen diren onuradun gaietako batek benetan bisitatu duela zigorpean dagoen edo prebentzio kartzela duen pertsona.



LIZARTZAKO

UDALA

GIPUZKOA

Horretarako ,espetxeko zuzendariak egindako ziurtagiria aurkeztuko du onuradunak, non eta adieraziko den zenbat bisita egin duen benetan onuradunak.

Bestalde, inprimaki bat emango die Udalak eskatzaile guztiei, zinpeko adierazpenaren izaerakoa, eta hori bete ondoren, onartu daiteke frogagiri moduan aurrekoaren ordeztu, diru-laguntzatan xede diren bisitak benetan zenbat egin diren kontuan izanik.

Lehen adierazitakoaren kalterik gabe, expetxeak egindako ziurtagiria nahiz bisita egin izanaren zinpeko adierazpen ordeztu ahal izango dira zuzenbidean baliozkoa den edozein agiriz, egindako bisitak benetan egin direla egiaztatzen dituenak.

VI.- ARGITARA EMATEA

15.- artikulua.

Emandako diru-laguntzen zerrenda eta emandako kopuruekin, diru-laguntzak emateko udal ordenantzaren arabera argitaratuko dira.

Diru-laguntzen datuak ez dira argitaratuko, baldin eta diru-laguntzak argitaratze hori pertsona fisikoen ohorearen errespetu eta babesaren nahiz intimitate pertsonal zein familiarraren aurkakoa denean, eta diru-laguntza hori arautzen duten oinarrietan horrela jasota dagoenean.

VII.- OINARRIEN INTERPRETAZIOA

16. artikulua.

Oinarri hauen interpretazioaren harira sor daitekeen edozein zalantza Alkatetzak edo honek eskuordeturiko organoak erabakiko du.

Oinarri espezifiko hauetan jasotzen ez diren gai guztietan Lizartzako Diru-laguntzak emateko Ordenantzan ezarritakoa izango da aplikagarri, eta baita Diru-laguntzen gaineko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta uztailak 21eko 887/2006 Errege Dekretuaz oarntutako legeak zehaztenduen Arautegiak diotena hartuko dira.

VIII.- GORA JOTZEAK

Oinarri hauen aurka berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango da hilabeteko epean deialdia onartu duen organo eskudunaren aurrean, edo zuzenean aurka egin ahal



LIZARTZAKO

UDALA

GIPUZKOA

izango zaio bi hilabeteko epean Administrazioarekiko Auzien Epaitegiaren aurrean. Epeak, beti ere, oinarri hauek argitaratutako egunaren biharamunetik hasiko dira zenbatzen.

10.- BIZIKLETA ETA OINEZKOEN BIDEEN UDAL SAREA GARATZEKO PROGRAMA – DIRU LAGUNTZA ESKAERA. ALKATEARI AHALMENAK EMATEA

2013ko martxoaren 8ko, 47 zenbakidun, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako, Gipuzkoako Lurralde Historikoan Bizikleta eta Oinezkoen Bideen Udal Sarea Garatzeko Programan aurreikustako diru laguntzak emateko oinarri arautzaileen, 4.2 oinarriari jarraiki, aurreago aipatzen dien programarako diru laguntza eskatzea erabaki dela:

LIZARTZAKO OINEZKOEN BIDEAREN BERRESKURATZE PROGRAMA

Diru laguntza eskaera sinatu ahal izateko, Udaleko Alkatea den, BEGOÑA BALERDI URDAMPILLETA andrea baimentzea erabaki dela.

11.- ZINEGOTZIAREN IZENDAPENA

2012ko abenduaren 13ko datarekin, sarrera eman zitzaion, Alkate eta Zinegotzia den AITOR AGIRRE ALKORTA jaunak aurkeztutako idatziari; idatzi horren bitartez, 2011ko maiatzaren 22ko hauteskundeen ondorioz eta 2011ko ekainaren 11an jabetza hartu zuenetik, Udal honetan betetzen zituen karguei uko egiten diela jakinarazi zuen.

Era berean, 2012ko abenduaren 14ko datarekin, sarrera eman zitzaion, Zinegotzi kargua hartzeko ukatuaz, XABIER BENGOETXEA GOGORZA, IGNACIO ALTUNA AZURMENDI eta MARIA ARANZAZU BALERDI URDAMPILLETA jaun/andreek aurkeztutako idatziei.

Kontutan hartuaz, 2012ko abenduaren 19an ospatutako Premiazko Bilkuran, AITOR AGIRRE ALKORTA jaunaren, Udal honetako Alkatetza eta Zinegotziaren kargu uztea kontutan hartu zela.

Kontutan hartuaz, 2012ko abenduaren 19an ospatutako Premiazko Bilkuran, XABIER BENGOETXEA GOGORZA, IGNACIO ALTUNA AZURMENDI eta MARIA ARANZAZU BALERDI URDAMPILLETA jaun/andreeen, Zinegotzi kargua hartzeko uko egitea kontutan hartu zela.



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

Kontutan hartuaz, horren ondorioz, BILDU Hauteskunde Elkarteari, hautatu ezinezko kausetan ez zegoen, beste hiritar bat izendatzeko eskatu zitzaiola.

Kontutan hartuaz, 2013ko martxoaren 25eko datarekin, BILDU Hauteskunde Elkarteak, JOSE MARIA SARASOLA ETXEBERRIA, NAN Zkia. 15.916.571 L duena izendatu zuela, Zinegotzi kargua hartzeko.

ERABAKIA

LEHENA. Hauteskunde Batzorde Zentralari erabaki honen berri ematea, BILDU Hauteskunde Elkarteak proposatutako, JOSE MARIA SARASOLA ETXEBERRIA jaunaren alde, egiaztagiria luzatzeko eskatuaz, bere karguaren jabetza har dezan.

12.- BESTELAKOAK

OSASUN ARRETA - MOZIOA

LIZARTZako udalak behin eta berriz adierazi moduan Tolosaldean eskaintzen den osasun arreta publikoaren alde dago. Zerbitzu hau, gestio publikoaz eskainia izan behar dela sinesten du.

Gestio publikoa duen zerbitzu publikoak ziurtatzen baidu arreta hau unibertsala izatea eta erdigunean pertsonen arreta eta osasuna jartzea eta ez irabazi ekonomikoak.

Horrez gain, eskualdeko osasun arretak okertzera egin du 2011ko azaroan Inviza eta Osasun Sailak sinaturiko hitzarmenetik. Itxarote zerrendak luzatu dira, mediku, erizain zein pertsonal kopuruak jaitsi dira... eta herritarren aldetik udalok jasotzen ditugun iritziak zerbitzuak atzerakada bat izan duela da.

Hori dena kontutan hartuta LIZARTZako udalak ondorengo eskatzen du:

- Euskal Herriko beste eskualdeek duten osasun zerbitzu bera eskatzen dugu Tolosalderako.
- Eskualdeko Osasun Zerbitzua 2011ko azaro aurretiko egoerara itzultzea. Hau da, eskualdeko anbulategiak izatea, mediku espezialistak dituzten zentroak.
- Eskualdeko erreferentziako ospitaleak Donostia ospitalea eta Asuncion izatea.



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

- Anbulategiak, izan beharreko pertsonalaz ornitzea eskualdeko osasun arreta egokia bermatua izan dadin.
- Eskualdeko ospitale publiko baten beharra aldarrikatzen dugu eta lehen fasean osasun arreta 2011ko azaro aurreko egoerara itzultzea eskatzen dugun bezala, ondoren ospitale publiko bat eskualdean izateko pausoak ematen joatea eta horretarako lan mahai bat eratzea eskatzen dugu.
- Mozio honen berri, osasun sailari ematea.

Osasun Arretari buruzko mozioa, aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

Eta beste gairik ezean, alkateak amaitutzat eman du bilkura, arratsaldeko zortzitan, eta nik, idazkari naizen aldetik, horren fede eman dut.

ALKATEAK
Izpta: Begoña Balerdi Urdampilleta

IDAZKARI-KONTU HARTZAILEAK
Izpta: Ana Jesus Zabala Garmendia